

## **2013KO URRIAREN 21EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita bata.

**HILABETEA:**Urria.

**URTEA:** Bi mila eta hamahirua.

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko zortziak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Koldo Agirre Mujika

**BILDUAK:** M<sup>a</sup> Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2013ko urriaren 9ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

### **2.- USURBE ZINEA ETA ERAKUSKETA ARETOAREN USTIAPENA ESLEITZEA.**

Ezagutzera eman da, Kontratazio Mallaren proposamena:

#### **“AURREKARIAK**

**1.-** 2013ko irailaren 16an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Usurbe Antzokia eta erakusketa aretoaren kudeaketa kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Lizitazio prezioa, 90.000,00 €tan gehi BEZ urteko finkatu zen eta egikaritze epea lau urtealdi eta beste urte betez luzatzeko aukerarekin.

**2.-** Deialdia, 2013ko irailaren 19an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 15 eguneko epean, lizitaziora hiru pertsona (fisiko nahiz juridiko) enpresa aurkeztu ziren (ikus 1. dokumentua).

**3.-** Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, denek baldintza pleguan aurreikusitako dokumentuak aurkeztu zituzten. Beraz, guztiak onartuak izan ziren lizitazioan parte hartzeko.

4.- Urriaren 8an ekintza publikoan, proposamen teknikoari nahiz automatikoki baloratzen ez diren esleipen-irizpideei buruzko kartazala ireki zen, hain zuzen ere, Pleguaren 5.1 klausulan ezarritakoak, hau da:

- Jarduera-memoria: 20 puntu.
- Hobekuntzak: 10 puntu.

5.- 2013ko urriaren 11ko datarekin Kultur teknikariak egindako txostena kontutan izanda, lizitatzailerei puntuazio hau ematea erabaki zen:

| MEMORIA   | URBIETA EGAÑA, SL | LEIRE MARKINEZ<br>ETA AITOR<br>MERCHAN | XABIER<br>AMENABARRO +<br>EDORTA MARTINEZ |
|---|-------------------|--|---|
| 1. Zinemagintzako eskaintzaren hedapena eta publizitatea / Difusión y publicidad de la oferta cinematográfica                                       | 2                 | 2                                      | 5   |
| 2. Antolatzea aurreikusten diren jarduera eta ekitaldiak / actividades y eventos que se prevén organizar.   | 1                 | 2.5                                    | 5   |
| 3. Usurbe antzokiko eskaintza eskualdera hedatzea / difusión de la oferta cinematográfica a la comarca  | 1                 | 2                                      | 2   |
| 4. Bitarteko pertsonalen organigrama /organigrama de medios personales  | 1,5               | 2                                      | 5   |
| <b>HOBKUNTZAK</b>   |                   |  |   |
| 1. Aretoan inbertsioak egiteko proposamena / propuestas de inversiones en la sala de cine   | 1                 | 1,5                                    | 5   |
| 2. Erabiltzaileen zein herriko eragileen, elkarte sozio-ekonomikoen eta kulturalen onurarako diren ekimenak / iniciativas que redunden en beneficio | 2                 | 0                                      | 5   |

|   |                  |                 |                 |
|---|------------------|-----------------|-----------------|
| de los usuarios, de los agentes sociales culturales y socio-económicos del municipio. |                  |                 |                 |
| <b>Guztira / Total</b>  | <b>8,5 puntu</b> | <b>10 puntu</b> | <b>27 puntu</b> |

6.- 2013ko urriaren 16an, lizitatuzaileek aurkeztutako proposamen ekonomikoak publikoki ireki ziren, emaitza ondorengoa izanik:

| <b>ENPRESAK / EMPRESAS</b>                                | <b>Eskainitako prezioa /precio ofertado</b> | <b>Puntuak / puntos</b> |
|---|---|-------------------------|
| URBIETA EGAÑA, S.L.                                       | 84.000 + BEZ/IVA                            | 30                      |
| AITOR MERCHAN<br>ZABALETA + LEIRE<br>MARQUINEZ CALVO      | 90.000 + BEZ/IVA                            | 0                       |
| XABIER AMENABARRO<br>AUZMENDI + EDORTA<br>MARTINEZ FRAILE | 87.000 + BEZ/IVA                            | 15                      |

Esleipen irizpide bakoitzeko lizitatuzaileek lortutako puntuazioen batuketa egin ondoren, emaitza ondorengoa da:

| <b>Esleipen-irizpideak / Criterios de adjudicación</b> | <b>URBIETA EGAÑA, S.L.</b> | <b>AITOR MERCHAN ZABALETA + LEIRE MARQUINEZ CALVO</b> | <b>XABIER AMENABARRO AUZMENDI + EDORTA MARTINEZ FRAILE</b> |
|--|----------------------------|---|--|
| <b>Proposamen Ekonomikoa / Propuesta económica</b>     | 30                         | 0   | 15   |
| <b>Memoria</b>   | 5,5                        | 8,5   | 17   |
| <b>Hobekuntzak / Mejoras</b>                           | 3                          | 1,5   | 10   |
| <b>GUZTIRA / TOTAL</b>                                 | <b>38,50</b>               | <b>10,00</b>  | <b>42,00</b>   |

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

**Lehenik**. Usurbe Antzokia eta erakusketa aretoaren kudeaketa, XABIER AMENABARRO AUZMENDI + EDORTA MARTINEZ FRAILE jaunei esleitzea, baldintza pleguaren eta beraiek aurkeztutako eskaintzaren arabera. Horren ondorioz, hamar laneguneko epean idatzi hau jasotzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Merkatal enpresa eratzeari buruzko eskritura.
- Enpresaren IFK.
- Jarduera ekonomiko gaineko zergan alta emanda egotearen agiria.
- Gizarte Segurantzaren enpresa inskribatuta egotearen agiria.
  
- Zerbitzuari atxikitako langileei Gizarte Segurantzaren alta emanda egotearen agiria.
  
- 17.400,00 €ko behin betiko fidantza eratzeari buruzko agiria.
- Erantzukizun zibileko nahiz higiezinaren eta bere edukian sortu daitezkeen kalteek estalita egotearen aseguruaren agiria. Hori guztia, 610.000,00 €ko kopurua duena.

**Bigarren**. Esleipena prezio honetan egiten da: 87.000,00 € + BEZ urteko.

**Hirugarren**. Egikaritze epea lau urtealdikoa da eta beste urte betez luzatzeko aukera egongo da.

**Laugarren**. Aipatutako dokumentazioa aurkeztu eta gero, behin betiko esleipena egingo da eta horretarako Alkate jaunari baimena ematen zaio. Jarraian, kontratu administratiboa sinatuko da.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

### **3.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera bederatziak laurden gutxiagotan amaitu da et nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.